

HAUTAKETA PROZESUA: OHIKO PROZESUA. 2022KO URRIAREN 20KO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA. (2022ko ABENDUAREN 22ko EHAA)

SARRERA MOTA: OROKORRA

DEIALDI ESPEZIFIKOA: ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN ESKALA

OPOSIZIO FASEAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK ARGITARATZEKO EPAIMAHANAREN ERABAKIA.

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoaren 4. puntuari jasotakoarekin bat oposizio fasearen ariketak zuzendu eta gero, aipatutako hautaketa prozesuaren epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA. – Txanda irekian eta desgaitasuna duten pertsonen txandan gainditu dutenen behin-behineko zerrendak egitea, dagozkien kalifikazioen arabera. Zerrenda horiek hautaketa prozeduran behin betiko onartutakoak dira, eta biak puntuazio hurrenkeraren arabera.

BIGARRENA. – Txanda irekian eta desgaitasuna duten pertsonen txandan gainditu dutenen behin-behineko zerrendak argitaratzea puntuazio hurrenkeraren arabera. Zerrenda horiek hautaketa prozeduran behin betiko onartutakoak dira eta UPV/EHUko langileen atarian (<https://www.ehu.es/eu/web/azp/ohioko-prozesua-funtzionarioak>) argitaratuko dira, izangaiek kontsulta ditzaten.

HIRUGARRENA. – Hamar lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezten, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Halaber, epe horren barruan, gainditutako izangaiek lehiaketa-faseko merezimendu konputagarriak alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio. Oposizio-aldiko behin-behineko emaitzei erreklamazioen bat egiten dietenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte horiekin batera.

LAUGARRENA. - Dokumentazio hori horretarako gaitutako EHUko egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar izango da. (<https://egoitza.ehu.es/eu/registroelectronico>) [AZPkoen 2022ko LEPa. Dokumentazioa aurkeztea](#) prozedura aukeratuz. Horretarako, hauetako ziurtagirietako bat erabili beharko da: UPV/EHUko langileen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre.

Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoak: http://www.ehu.es/oficinas_registro.html

Alegazio-formularioa eta, hala badagokio, merezimenduak egiaztatze dokumentazioa posta-bulegoetan aurkezten dutenek UPV/EHUko gerenteari zuzendu beharko diote eskaria eta 10.2 oinarrian adierazitako helbidera bidali, eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. art.).

Leioan, 2023ko abenduaren 11n